

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 161/2019 Erabakia, martxoaren 5koa. Erabakitzea lankidetzaz hitzarmen bat izenpetzea Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren eta Zigoitiako Udalaren artean, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzeari buruz

“Arabako Foru Aldundiak eta Zigoitiako Udalak uste dute axolazkoa dela elkarlanean jardutea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ikuskatzea dela-eta.

Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak (7/1985 Legea, apirilaren 2koa) 106.3. artikuluan ezartzen du toki erakundeak eskudunak direla euren zergak kudeatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko, baina atea zabalik uzten du eskumen horiek beste administrazio batzuek bete ditzaten lankidetzaz formulak erabiliz.

Lankidetzaz horren ezaugarri nagusia da borondatezkoa dela, eta, hori bideratzeko, behar diren administrazio partzuergo edo hitzarmenak izenpetu behar direla. Formula nagusia hitzarmena da, zeren partzuergoa eratzeko beharrezkoa baita lankidetzaz ezin formalizatzea hitzarmen bidez; gainera, partzuergoa eratzeko, beharrezkoa da eraginkortasun ekonomikoaren aldetik baliabide ekonomikoak efizientzia handiagoz esleitzeko aukera ematea.

Tributuen arloan, Toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauak (41/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa), 8. artikuluan, udal erakundeen eta Foru Aldundiaren arteko hitzarmen bidezko lankidetzaz aipatzen du, tokiko tributuoak eta toki erakundeen zuzenbide publikoko gainerako diru sarrerak kudeatu, ikuskatu eta biltzearen arlokoa.

Bestalde, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa), 5. artikuluan 5. idatz-zatian, aukera ematen du toki erakundeen eta foru aldundiaren arteko zergak aplikatzeko lankidetzaz formulak ezartzeko.

Esparru juridiko hori eta Udalak esleiturik dituen eskumenen kudeaketaren eraginkortasuna dira kausa jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzearen arloan Arabako Foru Aldundiaren eta Zigoitiako Udalaren arteko hitzarmen bidezko elkarlana justifikatzeko.

Kontuan hartuz 52/1992 Foru Arauaren 8.7 artikuluan xedatutakoa (abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoa), zeinak ahalmena ematen baitio Foru Gobernu Kontseiluari bere eginkizun betearazlea baliatuz lankidetzaz hitzarmenak egiteko Eusko Jaurlaritzarekin, Estatuarekin eta beste lurralde historiko, autonomia erkidego, probintzia eta herri administrazioekin.

Ikusirik Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena.

Haren bidez, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea lankidetzaz hitzarmen bat izenpetzea Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren eta Zigoitiako Udalaren artean, jarduera ekonomikoen gaineko

zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzeari buruz. Hitzarmena erabaki honen eranskin gisa doa.

Bigarrena. Ahalmena ematea Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari hitzarmena bera eta hitzarmena betearazteko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 5a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasuneko zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ